


**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**USANDIZAGA 7**



**Egilea eta data: Francisco Urcola; 1924**

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina, behe oina eta sei goi oin dituena, azken biak segidan atzeraemanak, denak jatorrizkoak. Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan (proiektatutakoa baino nabarmen handiagoan) eta Usandizaga kalerako eskuinaldeko baoan hormigoizko begiratokiak dituena, lehen oin atzeraemanera (5.era) galeria gisa zabaltzen direnak (hori ez zegoen proiektuan aurreikusita). Proiektu komuna Peña y Goñi 5ekin.

**Babes erregimena**

1. Erregimen orokorra.
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak, begiratokiak eta horien erremate elementuak eta balaustrada izan ezik.
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; moldekatuak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotutakoak barne.